

«Azeri dantza», Andoain eta Adunak errekuperatu nahi duten pieza bat

Andoain eta Adunako dantza autoktonoa izaki duela zortzi urte errekuperatu zen "Lizar makil" taldearen eskutik. Ondorengo urteetan berriro galtzorian zela ikusirik ikastaroak eratu dira jendeak ikas dezan eta erantzuna nahi bezainbeste-koa izan ez bada ere aurten kaleratuko da San Juan hirugarren egunez lehen herri horretan eta Aszentsioko Ama Birjin egunean bigarrenean.

Itxura guztien arabera irri egiteko dantza bat da, dantzarako pausoak eta jolaserakoak nahasiak baititu. Dato guztien arabera duela berrehun urtetara arte bi herri horietan dantza egiten zen. Geroztik inoiz behinka agertu da dantza hori plazara. Adunan esaterako, 1925etik 29ra bitartean urtero egin zen dantza hori.

Herriaren esanak dioenez,

menditik jeisten ziren ikazkinek dantzatzen zuten, gerora edozeinek dantza egitea onartu bada ere. Dantzariak aldatu ala, dantza bera ere aldatu egin da eta gaur egun pausoak askoz ere finagoak ditu. Diotenez, garai batetan buruan painueloa eramaten zuten edozein koloretakoa, alkandora zuria, galtza urdinak, artilezko galtzerdiak eta larruzko abarkak eramaten zituzten. Soineko bezala brusa gorria eramaten zuten belaunetara.

Angelusarekin batean dantzatzen denez, "aitarena" deitu zatiarekin hasten da dantza. "Zortzikoa edo leku aldatzekoa" egiten da gero. "Orratzekoa" egiten da segidan. "Txingoa edo ileta", "Perra jartzea" eta "Borroka edo torrea" azkenik Seotegiko Faustino Sorondo eta Altzarteko Dabid Zabala izan

dira dantza hau transmititu dutenak eta azken urteotan ikastaroak egin dira jendeak ikas zezan, beti ere partaidetza eskasa samarrarekin, 25en bat lagunek edo ikasi baitute urtean urtean.

Oraingo ekitaldietan mahonezko galtzak eta brusa gorriak erabiltzen dira eta musikaren partitura Andoaingo txistulari zahar bati esker lortu zen.

Oraintsu arteko dantza saioetan dantzariak anak zabaldu eta azkenekoak tartetik aurreratu zatorrenean puntua egiteko orratza eramaten zuen eskuetan jendeari zulatzeke. Broma horiek, ordea, haserre gehiegizkoak sortzen zituzten eta orratza eliminatu egin zuten.

San Joan egunean ikusiko da berriro dantza hau Andoaingo kaleetan.



«Azeri dantza» aurki berriro Andoainen.— Garai batetako dantza galtzear zen hau, berriro eskuratu dute Andoainen eta Adunan, eta lehen herri horretan aurki egingo dute, San Joanetako hirugarren egunean hain zuzen. Bost zati ditu eta zati bakoitzean figura desberdinak osatzen dira dantzariekin. Argazkian hirugarren zatia pasarte bat dantzari guztiek suga osatuz.